

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Inazia Llodio Bengoa

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1917-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Gesalibar auzoko Artabilla baserrian jaio zen, zortzi anai-arrebatatik seigarrena. Ama bertakoa zuen, eta aita Aramaioko Gantza auzotik etorritakoa. Garagartza auzoko eliza ondoko eskolan ikasi zuen sei urtetik hamahiru urtera arte. Gero kaleko eskolara joan zen josten eta bordatzen ikastera. Eskolak bukatu eta neskame joan zen Arrasatera. Hainbat etxetan jardun zuen umeak zaindu eta etxeko lanak egiten. Gerraostean, errazionamendu garaian, Zarugaldeko Azkarate okindegian aritu zen ogia saltzen. Gerra denbora Arrasaten eman zuen. Isiltasuna eta beldurra gogoratzen du Arrasateko kaleetan, bera mandatuak egitera joaten zenean. Ezkondu zenean utzi zion neskametzari. Aita arabarra zuen Luzio Velez de Mendizabal arrasatearrarekin ezkondu zen eta zazpi seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ARR-174

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-27
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Garagartzako eskola

- **Erref:** ARR-174/002
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:02:04. **Bukatu:** 00:03:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Umetan, Garagartzako eskolara joaten zen. Eskola non zegoen azaltzen du; eliza ondoan. Eskola gaztelaniaz izaten zen, baina ez omen zekiten. Sarritan zigortzen zituzten. Maisua euskalduna zen. Adin ezberdinetako umeak gela berean ikasten zuten: mutilak alde batean, eta neskek bestean.

Transkripzioa

-Bueno, bueno. Eta Gesalibarren baeuen eskolarik orduan?
-Garagartzara etorten gitzen.
-A Garagartzara?
-Bai.
-Nun euen Garagartzan eskolia?
-Ba hantxe, kamiño-kamiñuen, eleixie eta eskolie junto. Holan.
-A, eliz onduan?
-Bai, elixa onduen.
-Eta zueik eskolia zelan jaso zeuein, euskeraz edo erderaz?
-Euskeraz, nik uste dot, edo... erderaz, baiña ez gekixen erderaz! Ta gero, errekreuen be esaten uskun erderaz eitteko, baiña nokin? Iñok be ez gekixen ezebe ta!
-Eta kastigau ta eitten zinttuein?
-Baaaai, askotan!
-Erderaz eittiagatik?
-Ba nik ez dakit /eztakitt/ zegatigaittik, gaiztuek gitzelako edo. Kastigaute be sarrittan, errekreo barek eta.
-A bai e?
-Bai.
-Eta zer zeukotzuein, maisua, edo maistría?
-Maistrue, maistrue. Koruetakue edo zan, hor.
-A, euskalduna bera?
-Bai bai, euskaldune zan. Bai.
-Ze egoten ziñan, jente asko klasian?
-Bai, ta gaiñera ni xei urtekin jua nitzen. Baiñe nire anaie ta aizie be baebitzen. "Lo mismo" hamabikuek, hamarrekuek edo xeikuek. Danak junto. Bueno, gero diferente, ezta? Baiñe... Bai.
-Danak gela baten, ezta?
-Bai. Bai, bai.
-Eta maisu batekin?
-Bai. Alde baten neskatillak eta bestien mutikuek. Baiñe bistan e.
-Ta gutxi gorabehera zenbat lagun ziñain, zenbat estudiante ziñain, goguan daukotzu?
-Nik ez dakit baiña asko... Hogetaka bai, izengo giñen...

2. Eskola garaiko jolasak

- **Erref:** ARR-174/006
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:05:06. **Bukatu:** 00:05:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Eskola garaiko jolasak aipatzen ditu: 'toketorreka', 'tortoliska', sokasaltoan, 'txirikileka', 'hanka kozkoka'... Garaian garaiko jolasa izaten omen zuten. Neskak eta mutilak ez zuten elkarrekin jolasten.

Transkripzioa

-Eta han, eskola denporan, errekreuen, kasigaute ez bazengozein behintzet, ze jolas edo zer eitten zeuein?

-Ba segun ze epoka zan. Batzuetan toketorreka be bai. Hurrengo tortoliska. Hurrengo sokasaltoka. Garizuman txirikilleka. Ta, ze denpora zan, horixe.

-Eta neskak mutillekin batera...?

-Ez, ez! Bakotxa beran lekuen. Ta hanka-koskoka be bai, ein arrai batzuk lurrien, eta gero hankiekin han arraien ez ipintteko harrixa. HARRIXE ipintten bazan han arraian, galdu eitten zauen.

-Hanka-koskoka esaten zeuein?

-Bai, hanka-koskoka esaten gutsen.

3. Gesalibartik Garagartzara oinez

- **Erref:** ARR-174/007
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:05:59. **Bukatu:** 00:06:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Etxea eskolatik urruti zegoen; oinez egiten zuten bideoa. Bazkaltzera, etxera joan ohi ziren. Anai-arrebekin joaten zen eskolara.

Transkripzioa

-Eta zeure etxia ze euen urrin eskolatik?

-Bai, bastante.

-Bazkaitten ta etxera faten ziñan edo...

-Bai bai, etxera. Etxera juaten giñen.

-Danok juaten ziñein etxera bazkaittera?

-Ba bai.

-Zenbat denpora oiñez?

-Eneeeeeee orduen. Ba ez dakit nik, guk ordu laren edo. Ba handik, zera, Gesalibar hara plazara ba aguro hartzen zan ta gero apurtxo bat igo itten gauen aldatza. Baiña asko ez. Gaztieki giñen ta aguro itten gauen.

-Akordau be ez, ezta?

-Akordau be ez.

-Gaiñera bakarrik be ez ziñen fango?

-Ezta ez, ba anaia...

-... ta lagunak.

-Bai.

4. Arrasatera, josten ikastera

- **Erref:** ARR-174/008
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:06:47. **Bukatu:** 00:07:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

13 urterekin, Arrasatera joaten hasi zen josten ikastera. Maistraren izena esaten du. Jostun eskola plaza ondoan zegoen. Neskak bakarrik joaten ziren josten ikastera. Urtebete egin zuen eskola horretan.

Transkripzioa

-Eta gero esan dozu kalera etorri ziñala?
-Bai, bai.
-Kalien zein zan zure maistria?
-Ene, doña Cecilia Cárcamo.
-Cárcamo?
-Bai. Baiñe eneeeee pentsaizu.
-Eta hor ia pagau ta eitten zeuein, edo?
-Ba ez dot pentsetan ez, ez. Hori be debalde, Garagartzan moduen, debaldekua.
-A, eskolako [...]?
-Bai, bai, eskolie zan.
-Aaa. Eta bere etxera faten ziñain, edo?
-Ez, ez. Hortxe plaza onduen auen. Oin hamen e zerak, San Frantzisko hamen dauen lekuen auen eskolia. Hamen bertan, aurrekaldien.
-Ia, ia, ia, ia...
-Klaro, oin diferente dau, baiñe... ez, ez, hementxe bertan, San Frantzisko onduen.
-Bai eta e... karo, pentseitten dot hor laboretan behintzet neskak bakarrik ibiliko ziela, ezta?
-Neskak, neskak.
-Eta mutillak beste norabaittera faten zien?
-Ba beste norabaittera haik, eurenera.
-Eta hor beste urtebete orduan.
-Ba urtebete edo bai.

5. Errepublika etorri zenekoa

- **Erref:** ARR-174/009
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:07:56. **Bukatu:** 00:08:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Errepublika etorri zenean Ignaziak 14 urte zituen. Egun horretan, Santa Agedatik oinez joan zen Arrasateko jostun eskolara, baina etxera bidali zuten; dena itxita omen zegoen.

Transkripzioa

-Bueno, bueno, eta orduen zuk, hamalau... Orduentxe errepublikia etorten.
-A, bai, errepublikie etorri zan egunien, ni etorri nitzen Santa Agedatik.
Oiñez, e! Eta... ixilik, iñobez kalien ta, batek esan uskun "Nora etorri zara?" ta "Eskolara". "Republikiek urten dau eta jua zaittez etxera". Eta barriro

buelta ein ta jua nitzen Santa Agedara, baiña...

-Eskola barik.

-E?

-Eskola barik.

-Klaro. Dana zerraute, ixil-ixilik, iñobez ta "Jesus, ze jak?" eta ez dakitt andraren bat edo nor zan, esan usten /esausten/ "Zetan etorri zara?" ta "Eskolara". "Republikiek urten dau ta..." Nik ez nakixen /enakixen/ republikie zer zan, eta etxera barrido. Orduen radioik-eta be zelan ez euen ba...

6. Errepublika eta erlijioa

- **Erref:** ARR-174/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:08:49. **Bukatu:** 00:11:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Erepublika garaiaz hitz egiten du. Eskolan, gurutzeak kendu zituzten. Eskolan jarraitu ahal izateko, etxekoen ohar bat eman behar izan zuten: oharrean zer jartzen zuen aipatzen du. Klean manifestazioak egin omen ziren eskoletan gurutzeak ez kentzeko eskatuz.</p>

Transkripzioa

-Eta zuk goguen daukotzu iñungo aldaketarik edo iñungo kanbixorik edo, zeozer republikien inguruan? Jairik edo...

-Ba ez naz /enaz/ akordetan. Gu baserritik etorri be ez. Ta kendu uskuen krutzifijuek e, eskolan. Ta gero eskolan segiruteko barrido erun biher gauen /bigauen/ nota bat etxeko... etxien permisue, ta gure etxien nok? eta batek kopixau nusten "En mis últimos acontecimientos quiero que mi hija... que aprenda... o... que aprenda la doctrina, o que esté el cristo" o holako gauza bat zan.

-A, berriz ipintteko kurtziok?

-Bai.

-Hor manifestaziñon bat edo egon zan, ezta?

-Bai, manifestaziñuek-eta bai, baiña guk ez gauen ikusten.

-Karo, zuek...

-Gu baserrixen. Ta han.

-Eta manifestaziñuak ze egon zien hemen kalien edo auzotan edo zelan?

-Kalien, kalien. Auzuetan... Han... Guk, gaiñera.... Ez, Santa Agedan-ta ez auen holakorik.

-Orduen etxetik eskatu otsuein... orduen hori zelan izen zan, auzuen zera, edo abadiak eskatutakua edo?

-Ez dakitt. Guri aiuntamientuek edo ez dakit nok behintzet guri hori obligaziñuoi eruen uskun, papel bat, gure bagauen barrido dotriñie ikesi eta kristua han egotia. Horretxekin akordetan naz.

-Kontxo. Holakorik ez dost iñok kontau. Manifestaziñuena ta horreik gauza horrek bai, baiña..

-Guk, manifestaziñuena, ez da fasil, gu baserritik... Oin, hemekuek jakingo daue. Baiña ni horrena, papel bat ekarri nauena eskribirute "En mis últimos órdenes de mi hija quiero que siga aprendiendo o..." Bai.

-Kontxo, kontxo. Eta zer, jarri zittuein atzera, edo?

-Bai, bai, barriro segiru nauen.
-A, lehenetara jarraitu zebein? Dotriña ikasten eta.
-Bai, bai, gero lengo moduen.

7. Umezain, Arrasaten

- **Erref:** ARR-174/011
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:11:04. **Bukatu:** 00:13:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Eskola bukatu zuenean, 14 urterekin, umezain hasi zen Arrasateko familia batean. Hiru-lau lekutan egon zen neskame: azkena, Azkarate okindegian aritu zen lanean. Zer lan egiten zituen eta zenbateko soldata zuen kontatzen du.

Transkripzioa

-Bueno, eta eskolok bukatu zienien?
-Gero kriera. Umezain.
-Nora fan ziñan?
-Hamentxe, Mondrauen, kalera. Arrasaten. Arrasatera bai.
-Baiña jan ta lo bertan, ezta?
-Bai, bai. Dana.
-Noren etxian egon ziñan?
-Ene ia ez die bizi.
-Hori zer, eskolia akabau ta segidan? Hamalau urtekin?
-Bai, hamalau urtekin.
-Eta zelan eukein izena? Horreik, zure nagusixan izan zienak?
-Ba bat e, andrie zan Fakunda Abarrategi.
-Kontxo.
-Bai.
-Abarrategi batzuk ein dittut.
-Bai. Hori Udalakue zan. Ta gizona zan Velez de Mendizabal. Nire gizonen tio bat.
-Aja.
-Bai, baiñe geroko buenooo, hamalau urtetik hogetaka urtietara...
-Egon ziñen, kriara?
-Bai, kriera bai. Baiñe hiru-lau lekutan e. Atzenengo panaderixa baten, ogixa emoten.
-Ze panaderixatan?
-Zarugalden, oin ez dau, Azkarate.
-Azkarate?
-Bai.
-Eta kriada lanetan e, umezain ibiltten ziñanian, ze itten zebein, umezain bakarrik, edo...?
-Ez, lanak eta fregae eta... ba danetik, danetik.
-Eta sukaldien itten zebein? Edo hori ia etxeko andriak itten eben?
-Eee ba segun, batzuetan noberak be bai. "De todo".
-Eta zenbat e, pagau itten otsuein, bape be?
-Bai, pagau bai, baiña gutxi e. Zazpi duro. Ta zapata pare bat erosteko bi hilebete pasa.
-Zazpi duro hillian pagaitten otsuein?

-Bai.
-Eta zapata pariak hamabost duro balixo...
-Ez! Zan hamabost pezeta pagau eta zapatak zazpi ogerleko.
-Aaaa, hiru duro.
-Bai, hiru duro.
-Hiru duro hillien irabazi, eta zapata pariek zazpi balixo eben?
-Bai.
-Mekatxis la mar.

8. Etxeko giroa: aita gazterik hil, anaiak soldadu gerran...

- **Erref:** ARR-174/013
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:13:28. **Bukatu:** 00:14:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Umetan, egunero joaten zen eskolara. Baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen goizetan eta opor garaian. Ignazioaren aita gazterik hil zen, biriketako gaixotasun baten ondorioz. Aitak behin lepoan hartu zuela gogoratzen du. Aitajauna eta andrea, ama eta zortzi anai-arreba bizi izan ziren baserrian. Anai-arreba zaharrenak lantegira eta neskametza lanetara joan ziren. Anaia gazteenak, berriz, gerran ibili ziren.

Transkripzioa

-Eta zuk baserrixan, eskola denporan ta, eskolara egunero faten ziñan, edo?
-Egunero, bai.
-Eta ittaurren in biher zanian?
-Bai! Eitten gauen, hori be! Bakaziñuetan ta, goixien edo... "de todo" eitten gauen /eittegauen/ e.
-Zer zeukotzuein, ganau asko etxien?
-Ba ez, askorik ez, ez dakit nik, lau edo. Gero aittejaun-amandriek euzen. Aitte ez e. Aitte ez nauen ezautu.
-A ez, e?
-Ez. Lau urte edo neukaten. Akordetan naz behin lepuen ibili nindduela. Bestela ez.
-Eta ze pasau xakon ba?
-Pulmonixiaz hil. Neguen, ta gaurko moduko adelantorik be ez, ta... bai. Baiñe gazterik e.
-Oseake gaixorik hil zan?
-Bai.
-Ia, ia. Baia. Orduen zeuntzein aittajaun-amandrak eta ama eta zazpi umiak?
-Bai, bai. Ta gero nausixenak ta be kriera, eta anaiek fabrikara ta... nausixena e, gaztienak gerran ibili zien, ez eukien lanik. Ta gero gerra ostien lana ein auen, baiñe aurretik ez.

9. Behiak, ardia eta gazta

- **Erref:** ARR-174/014
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:14:47. **Bukatu:** 00:15:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Baserrian abereak zituzten: lau behi, ardi taldea... Goizetan, anaia zaharrenak lantegira joan aurretik gobernatu ohi zituen ardiak. Amak gazta egiten zuten.

Transkripzioa

-Eta orduen lau behi, eta ardirik edo bazeukotzuein?
-A, ardirik euzen! Ardirik pastoriek, bai. Ardirik. Hor dau txabolie.
-Eta ardirik, pastoria zeukotzuein, edo etxekoren batek eitten euen...?
-Ez, ez, etxekuek, etxekuek. Goixien fabrikara jua baiño lenau eruen edo batu ta... etxekue. Etxeko nausixenak.
-Eta gaztaia eitten zeuein?
-Baita, bai.
-Ta ze eitten euen, amak?
-Amak eitten auen, bai, bai.

10. Gaztainak saltzera

- **Erref:** ARR-174/015
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:15:21. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Ez ziren astero joaten plazara salmenta egitera. Gaztaina denboran, berriz, gaztaina saltzera joan ohi ziren.

Transkripzioa

- Ortu gauzak eta plazara erueten zittuein, edo?
-Bai, gutxitten. Gaztaiña denporan kaztaiñie bai. Baiñie bestela... ez.
Baserrixe aiñubeien be baeuen eta... bertarako ondo, baiñie saltzeko ta ez.
Kaztaiña denporan euela ekarriko auen zeozer, baiñie bestela leku askotan moduen astero plazara ez.

11. Gari lanak

- **Erref:** ARR-174/017
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:16:02. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari lanei buruz hitz egiten du. Garia ebakitzen aritzen zirenei ura eramaten zien. Larrinean egin, lastoa bildu... ohi zuen.

Transkripzioa

-Zer moduzko lana zan garixenoi?

-Buuu gu txikiñek gitzen, guk ure karrietan gauen bakarrik e, erateko, ebaitten ebiztenien.

-A bai? Eta zuk, zuk hamalau... osea eskolak bukatu zittueiñien-eta ez euen garirik etxian ia?

-Bai, baiñe gero ba ez dakit ze eitten auen. Baiña gu eskolan gebitzenien ta bakaziñuetan, gari ebaitten ibilten bazien, ba, "Ekarri ure!" ta ure eruten gutsen itturritik. Han etxie baiño goratxuau gauken itturrixa, freskua ura. Ta handik ure erueten gauen.

-Eta gari-joten eta ez ziñain ibiltten?

-Zera eitten zittuen, esto... har...behixekin...

-Bai, larrañian.

-Larri... bai, hori itten han, bai han ibilten giñen.

-Ia, oseake zuk orduen gari konturik eta ez daukotzu oso...

-Gari kontue, ba, horixe, ni ebaitten ez dakit sekule ez dakit, akaso egunen baten apurren baten, baiñe... gero larriña in, ta zera lastue batu, ta kamararako preparau ta horreik danok bai, baiña, bestela, ba, ez.

12. Gerra hasiera

- **Erref:** ARR-174/019
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:19:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Gerra hasi zenean, neskame zegoen Arrasateko familia baten etxean. Donostia eta Trintxerpe aldetik emakume armatuak, milizianoak, Arrasatera joan zirela gogoratzen du. Arrasaten militarrek zauden, eta Santa Ageda aldean, berriz, "gorriak"; hori dela eta, ezin zuen baserrira joan.</p>

Transkripzioa

-Gerría, gerría hasi zanién nun zeontzen zu?

-Gerríe, ni hamen kalien ninguen.

-Kriada?

-Bai, bai.

-Zeiñen etxien zeontzen orduen?

-Ba ia ez die bizi, Gorosabel apellidetan zien, baiñe ia... ez die bizi. Loban bat edo bai, baiña, bestela, eurak ez die bizi.

-Eta zu etxien zeontzela etorri zien lehenengo tiruok, edo?

-E, ba, gu kalien gazela "gerriek urten dau, gerriek urten dau" eta en segida etorri zien zeretik, Donostiatik, Trintxerpe, Trint... zelan da?

-Trintxerpe?

-Bai. Handik emakumiek eta danak, miliziano jantzitze ta eskopetakin ta.

Gu sustauta. Emakumiek eta.
-Baiña emakumiek soldauek?
-Emakumiek pistolakin, eskopetakin! Hortik Donostiatik etorri zien.
-Horrek milizianuak izengo zien.
-Ba milizianuak, orduen ez gekixen guk zertzuk zien milizianuok be ta.
-Eta gero horreik, zu hamen kalian geratu ziñan edo etxera fan ziñan?
-Ez, ez, hemen, hemen. Gero, hau euen militarraikin, ta Santa Ageda euen gorrixekin. Orduen gorrixek esaten jakuen. Ta ezin juan.
-A karo.
-Ez, ez.
-[Ezin pasau harutz, ezta?]
-Ezin, ezin, ez.

13. Tiro eta kanoikadak

- **Erref:** ARR-174/020
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:19:03. **Bukatu:** 00:20:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Gerra hasiera. Arrasaten milizianoak zeuden. Gero, herria militarrek hartu zutenean, erreketek jarri ziren bertan. Murutik tiro eta kanoikadan izan ziren. Neskame zegoen etxea tiroz jo zuten. Beldurrez egoten omen ziren beti.</p>

Transkripzioa

-Baiña hemen hasiera baten milizianuok egongo zien, ezta?
-Baaai, milizianuok be egon zien. Ta gero hau militarrek hartu auenien, ba, Reketiek edo soldauek eta gero orduen tiruek hortik Murutik eta, orduen kaiñonazuek etorten zien.
-Ta zu ze kaletan zeontzen lanian?
-Hortxe, hortxe Zerrajera onduen, Garibaixen.
-A Garibaixen?
-Bai. Garibai edo Biteri, hor e...
-Bai, bai, bai, badakit nun dan. Eta ze bizi ziñan, piso baten?
-Pisuen, bai.
-Zenbatgarrena zan?
-Hirugarre... hirugarrena.
-Hirugarrena. Eta han, bertan, bentanatik tirorik edo sartu xatzuen?
-E bai, bentana onduen be bai. Bentana onduen be tiruek zertu auen. Disparau auen.
-Ha izango zan bilddurra, ezta?
-Bai, bai, beti bulddurrez, kaiñonazuek etorten zienien be bai.
-Eta errekauek itteko eta holako gauzak?
-Ba bilddurrez, ixilik euzenien.

14. Zerrajera kooperatibara erosketak egitear

- **Erref:** ARR-174/022
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:20:09. **Bukatu:** 00:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lanbideak » Neskameak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Gerra hasieran, dendak zabaltzen zituzten. Parrokia ondoan zegoen Zerrajera kooperatiban egiten zituen erosketak. Ignaziaren nagusiak bertan egiten zuen lan. Gerrak aurrera egin zuen moduan, jatekoa falta izan zen.

Transkripzioa

-Eta dendak-eta eregitta euzen orduan?

-Bai, zabalketan zien, bai.

-Ze dendatara faten ziñan zu errekautan?

-Ba, orduen, ba, Zerrajetak euken kooperatibie.

-A bai?

-Eta kooperatibara.

-Nun euen kolokauta Zerrajerian kooperatibia?

-Ba, bat euen hor, parrokixien onduen, euen bat, ta gero etorri zan hona Garibaire, horra, aurrera.

-A, parrokixa inguruen, Erdiko kalien edo?

-Erdiko kalien. Oin taberna bat dau. Hantxe.

-Eta zure nagusixak Zerrajeran itten eben lan?

-Bai.

-Eta, orduan, zer moduz arreglaitten ziñain jatorduak preparaitteko ta? Nehiko gauza euen?

-Ba, gauzak egon zien, gero faltau zien, ia handik gerora. Aurretik, ba, ondo. Orduen potajie-ta ez zan gaurko beste... zer ipiñiko ez euen orduen gure gauen beste gauza ipintteko.

15. Kale etxeko eta baserriko jatorduak

- **Erref:** ARR-174/023
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:22:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Kale etxeko eta baserriko jatorduei buruz hitz egiten du. Neskame zegoen etxean zer jaten zuten aipatzen du: baba zuri eta gorria, garbantzuak, arroza... Baserrian, berriz, babak, porru-patatak, gaztainak, berakatz-salda... jan ohi zituzten. Lau behi zituzten baserrian. Biltzen zuten esnea etxerako izaten zen.

Transkripzioa

-Zein izaten zan hamen kalien jatordu normala? Asteguneko jatordu normala?

-Ba hamen potajie izeten zan, o... lentejie be ez. Baba gorrixek, baba zurixek, garbantzuek, arroza... ta horretxek gauzok.

-Eta baserrixen, baserrixen be antzea, edo?

-Baserrixen be gehixen baten babak han. Babak. Ta gero porru patatak.

Kastaña denporan kastañak, ta gero berakatz saldia... ta...

-Hoi izaten zan afaixa, ezta?

-Bai, bai.

-Gaztaiñak, eta gero berakatz saldia.

-Bai.

-Gero esne katillukada bat hartu ta...

-Bai... ba...euenien.

-Euenian.

-Bai.

-Zueik etxian esnia etxeako itten zeuein?

-Bai, etxerako. Bai, ez, bakarrik etxerako.

16. Gerra denborako kaleko giroa

- **Erref:** ARR-174/025
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:22:13. **Bukatu:** 00:22:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran, kalean zer giro zegoen kontatzen du. Kalean isil-isilik ibili behar izaten zen, goiz erretiratzen zen jendea.

Transkripzioa

-Eta kontaidazu, zu akordauko zara, kalera urten ta militarrek eta. Ze giro euen hemen gerra denporan?

-Ba ixil-ixilik kalien soldauek e... [iguelt] reketen batzuketan edo soldauen batzuketan berba ein ta ixil-ixilik ibili. Goix erretiratu, eta...

17. Maixor etxearen beheko aldean, ospitalea

- **Erref:** ARR-174/026
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:22:38. **Bukatu:** 00:23:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

<p>Gerra denborako oroitzapenak. Maixor etxearen garajearen ospitalea zegoen, gerrako zaurituentzat.</p>

Transkripzioa

-Tiroz min hartutakorik-edo ikusi zeuein, edo?

-Ez, auen hor Maixorrena, oin dendie dau, Maixorren dendie, ta haren garajien auen zera, anbulantzia edo ospitala. Oin dendak dauz, "Caja de ahorros" a ta horreik, ezta? Ta hor zan, ba, Maixorrenak zien Mondraueko jauntxuek. Zerrajerakuek. Eta garajie behien eta han garajien ipiñi auien zera...

-Ospital antzeko...

-Ospitala, bai.

-Eta hori soldaumentzako zan, edo?
-Heriduentzako, heriduek, gerran e... han heridu...
-Bai, heridute zeotzenendako.
-Bai.
-Ia, ia, ia. Zeuri ez xatzun /etxatzun/ tokau faterik?
-Ez, ez, ez...gu e, ez jakun /etxakun/ holakorik pasau.
-Osorik urten zebein?
-Bai, bai.

18. Arrasaten Oreja hil zutenekoa

- **Erref:** ARR-174/027
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:23:37. **Bukatu:** 00:25:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Errepublika garaian, Oreja hil zutenekoa gogoratzen du. Egun horretan, goizean, dendak itxi egin zituzten. On Rikardo Azkuagaren ihesaldia kontatzen du. 1934. urte inguruko gertaera da.</p>

Transkripzioa

- Eta hemen horreik, zuk goguan daukatzu Oreja hil ebeifien ta?
- Bai.
- Zela izan zan?
- Ba, goixien danak zerrau zittuen, dendak eta danak eta ogixe ta dana, hamen Malan auen trinketie esaten utsiena ta juan bihe zan horra ogixe edo zerbait hartzen. Eta gero Oreja ta ekarri zittuen hona erre kara, hamen oin erreka bat zerraute badau ta hor zabalik bistan eta horra erre kara ekarri zittuen eta ba "Ene! Oreja ta ez dakit nor hil dauela ta ixilik" eta kuartelera tiro baten denpora guztien. Eta gero batek, Don Rikardo, ia horreik be juanda daoz, harek hona erre kara salto in auen, hortik erre katik urten auen horra, horrutzatxuau, Zarugaldera, ta hortik urten auen kalera eta zer bat, autobus bat soldauekin ta hari alto in utsien eta esan utsien nora zoiazen ta Eibarrera ta harek hartu auen, harek kamioiek edo autobus horrek hartu auen Eibarrera, zera, Don Rikardo Azkoaga. Ha be zan jefia ta ha be detenidu auen ta gero Eibarren, Eibarkuek deittu auen zerera, Bitorixara esanez Mondrauen ze pasetan zan ta arratzaldien etorri zien soldauek eta gero orduen soldauok, zerak, urten auen dana mendire, baiña, mendittik bajau ein biher ta gero ba, detenidu zittuen.
- Baiña hori zan Oreja hil auenien?
- Bai. Hori zan, republika denporan izengo zan. Treinta y...
- Bai, hogeta hamalauan.
- Bai, republika denporan zan hori. Bai.

19. Kanoikadak Muru eta Udala aldetik

- **Erref:** ARR-174/029
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:26:07. **Bukatu:** 00:26:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

Gerra denboran, soldaduak Bizkaia aldera joan ziren arte beldurrez egon ziren. Murutik, Udala bidetik... kanoikadak botatzen zituzten. Ignazia neskame zegoen etxea ez zuten kanoikadek jo, baina tiroek bai.

Transkripzioa

- Eta gero ia gerra denporan...
- Gero gerrie barrido.
- Hamen zenbat denpora egon ziñain, bilddurrez, edo?
- Ba nik ez dakit zenbat denpora izengo zan. Haik eta urten euenetik barrido Elorrixora, horra, Bizkaire juan zien bittartien. Orduen botaten zittuen kaiñonazuek, ba, Muru, hortik Murutik, Udala bidetik... hortik botaten zien.
- Eta zuen etxien ez an jausi, kaiñonazorik, e?
- Kaiñonazorik ez. Oin zera...
- Balazuek?
- Balazuek bai.

20. Santa Agedako mutilak fraideengana aholku eske

- **Erref:** ARR-174/031
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:26:52. **Bukatu:** 00:28:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Gerran hildakoak eta zauritutakoak](#)
- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

Ignaziaren anaia gazteenak gerran ibili ziren. Santa Ageda aldeko mutilak fraideengana jo zuten gerran zeinen alde egin aholkua esketzeko. Han esan zien militarrek, Francoren aldekoek, irabaziko zutela gerra, eta haiekin bat egin zuten auzoko mutil gehienek. Auzoan, hainbat hildako izan ziren.

Transkripzioa

- Eta esan dostazu anaiak ibili ziela, ezta?
- A ba anaiek ibili zien... klaro, orduen iñok ez ekixen gerrie ta zer, nok irebazi te zer. Ta Santa Agedako mutillek juan zien fraillietara. Ba han medikuek eta jente ilustraue eta zerren, zeñen alde ingo auen, pentsaizu. Eta han akonsejau zittuen militerrak irebaziko auela. Eta hobeto euela militarren alde eitteko. Eta horregatik pasau zien hona Santa Agedako mutil danak. Ta han Zabolain edo, hortik ez da ikusten, hor geratu zan, hari ezin abixau. Ta ha geratu zan gorrixekin. Ta ha hil ein zan. Baiñe gero ha, Garagartzakuek, Santa Agedako bat be hil zan, ta Garagartzako maistruen semie ta batenbatzuk hil zien, baiñe asko ez.
- Eta, orduen, zuen, zure anaiok Francokin geratu zien.
- Bai, bai. Ta haretxen letxe Santa Agedako danak.
- Eta ze egon zien, gerria bukatu zan arte?
- Bai. Eta hiru anai zelan zien, bat, nausixena, etorri zan etxera. Ta bestiek egon zien.
- Eta noiz arte egon zien?

-Ba, gerrie akabau arte egongo zien. Ni ez naz akordetan.
-Eta ez euen euki heridarik edo...?
-E?
-Ez euen euki problemarik, heridarik edo?
-Ez, ez, gero normal, normal.

21. Errazionamendu garaian, okindegian neskame

- **Erref:** ARR-174/035
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:31:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra ostean, errazionamendua etorri zenean, Arrasateko Azkarate okindegian zegoen lanean. Okindegian lan egin arren, ez zuten ogi zuririk jaten; "zegoena" jaten zuten. Irina Zaragozatik ekartzen zien.</p>

Transkripzioa

-Baiña zuk, rasionamentua etorri zanién, ondiok soltera zeuntzen, ezta?
-Bai, bai.
-Ta orduen nun bizi ziñan?
-Ba orduen be kriera zerien, panadeixan.
-A, panadeixan.
-Bai.
-Eta han rasionamentua zeuk jasoten zebeñ edo? Zeu faten ziñan rasionamentua jasotera?
-Hor panadeixan ez, eurei e... urun zakuek ekarten zittuen eta. Zera, molde batzuk eta. Ene, ia ez naz /enaz/ akordetan zertzuk partiruten gittuen.
-Ta zueik han panaderixan ogi zurixa jango zeuein, ezta?
-Ba euenien bai, baiña bestela ez, ez, euená.
-A ez, e?
-Ez.
-Segun ze urun euen?
-Bai, haxe.
-Ta ze urun klase ekarten euein hain ogi baltzak eta [itsusixak] eitteko?
-Ba nik ez dakit nunguek. Gero Zaragozatik etorten zien. Gero atzenengoko urunek Zaragozatik. Baiñe bi klase etorten zien. Batek ogixe eindde aguantetan auen gehixau, bestiek gutxiau. Ta segun ze kamioi etorren, hasarre egoten zien "Ña!Horreik be bajatozak oin be". Ta bestie gurau.
-Urun hobia.
-Bai, bai, gehixau kundiruten auena.

22. Azkarate okindegia

- **Erref:** ARR-174/036
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:31:25. **Bukatu:** 00:32:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Neskameak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Gerra ostean, Azkarate okindegian egin zuen lana. Ogia saltzeaz arduratzen zen. Bi anaiena zen okindegia, eta txandaka aritzen ziren lanean. Ignazia bertan bizi zen. 15 ogerleko irabazten zituen.

Transkripzioa

-Ta zuk panaderixan, zer itten zebeu ogixa saldu edo ogixa eitten be lagunketan zebeu?

-Ez, ez. Saldu bakarrik.

-Saldu bakarrik?

-Bai.

-Zela esan dozu, Azkaratena esan dozu, ezta?

-Bai.

-Hor, Zarugalden.

-Bai.

-Ta hor ze euen, familixa dana panaderixan?

-Eurak bai.

-Eta zu ze ziñan, kriada bakarra edo...

-Bai, ni panaderixan dependiente. Eurak, bi anaienak zien, egoten zien, ta txandaka eitten auen.

-Eta zu dependienta bizi be bertan bizi ziñan edo?

-Bai, bai.

-Orduen ia hamabost pezeta baiño gehixau irabaziko zebeu, ezta?

-Ordu... bai, orduen e, ez dakit, hamaxei edo zien, hamabost duro edo.

-A, duruek ia?

-Bai, oberlekuek.

-Ia. Oseake lehenengo hasi ziñanian hamabost pezeta ordainketan otsuein.

-Bai.

-Eta hor ia hiru duro.

-Bai, bai.

-Hamabost ogerleku.

23. Zortzi piezako erromeria

- **Erref:** ARR-174/038
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:32:28. **Bukatu:** 00:34:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Gerra aurretik, plazan izaten erromeria. Zortzi pieza jotzen zituzten: lau afal aurretik, eta beste lau afal ostean. Neska-mutilek elkarrekin dantza egiten zuten; Hijas de María kongregazioan ibiliagatik ez omen zen erlijio jazarpenik.</p>

Transkripzioa

-Gerra aurretik, zuk hamazazpi-hamazortzi urtekin, ya erromerixetara ta dantzara-ta fango ziñein, ezta?

-Ba hamentxe, lau... zortzi pieza joten zittuen. Ta lau afal aurretik eta lau afal ostetik. Lau piezak entzun ta afaitten. Ta afaldu ta fregaeu ein ta gero beste zortzi piezak e... o beste lau piezak. Ta bueltatxo bat ein ta, ba, aramaittaketarako o, hamarrak o zortzi tt'erdik edo ez dakit beratzirak edo zer izeten zan, ba, etxera.

-Aja. Orduen... jontxo! Hori entzun barik neukan. Nun joten ebein, plazan?

-Plazan, plazan.

-Oseake afal aurretik lau pieza, ta afal ostian beste lau.

-Bai. Ta haretzek dantzan ein ta konforme.

-Ta mutillakin-ta eitten zeuein dantza?

-Bai, bai. Segun, batzuetan bai ta beste batzuetan ez ta... "de todo". Baiña plazan bueltaka-bueltaka, e. Hantxe.

-Eta relijiñuagatik-eta ez euen problemarik, ez zeukain problemarik emakumiok e...?

-Ez, ez...

-Hori republika garaixa izengo zan, ezta?

-Guk sekula be ez gauen euki problemarik dantzien ta relijiñuekin ta hori. Sekula be ez.

-`Hijas de Marías´en edo egon ziñain?

-Bai, egon bai. Baiña ez uskun guri ezer zertzen. Bai, bai.

-Zu baiño gaztetxuauak ya problemak izaten hasi zien.

-Ba... ez, geuri ez behintzet, e. Neu ez naz akordetan ta ni ez naz akordetan sekula ezer problemarik euki gauenik horren gaiñien.

-Ya, ya ya... Eta aramaittekuak ze ordutan joten euen?

-Ba nik ez dakit ze ordu izengo zan. Astegunetan zazpi t'tterdiretarako, baiña domeketan, ba, ez dakit. Gu behintzet dantzan eindde, o piezak bukatu, bueltie ein estaziño ondolik eta etxera.

24. "Gaua, gauekoentzako; eguna, egunekoentzako"

- **Erref:** ARR-174/039
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:34:29. **Bukatu:** 00:35:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Zarugaldeko mamuari buruz hitz egiten du. Amandreak esaten zien gauez joanez gero, izara zuriz jantzitako mamua atera eta zera esaten zuela: "gaua, gauekoentzako; eguna, egunekoentzako"

Transkripzioa

-Zuk, zuretao ezaguna da hau Zarugalden edo, Albako kanpaiak eta fantasmia ta goguen dakotzu zuk? Fantasmia urteten ebela Albako kanpaiak jota ta...

-Entzun, amandriei-ta entzun bai, baiñe... Antxiñekuek amandriek kontetan uskun: "Gaba gabekuentzako eta egune egunekuentzako". Ta gabaz juaten bazien, igual izerakin urteten eueta ta "Zer?", "Gaba gabekuentzako eta egune egunekuentzako" eta buelta ein ta etxera. Fantasmak edo... Horreik gauzok kontetan uskun.

25. Okindegia eta errazionamendua

- **Erref:** ARR-174/042
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:35:38. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Gerra bukatu zenean, errazionamendua jarri zuten. Ogi beltza izaten zen. Azkarate okindegian egiten zuen lana denbora horretan: okindegian ez zuten errotarik, labea bakarrik. Irina kanpotik ekartzen zuten. Errazionamendua ere bertan partitzen zuten.</p>

Transkripzioa

-Bueno, gerrioi akabau da, eta gosia. Razionamentua eta...

-Bai, dana razionamentua. Ta ogixe be bal-baltza. Bueno ogixe be ez zan izeten. Ez dakit zekin eitten auien.

-Eta zeuek be panaderixan ha jaten zeuein?

-Bai. Bai, bai.

-Ta ez zan etorten baserritarren bat garixekin edo?

-Ba ez dakit, baiñe molid... ixo ta ez...

-A, karo, zueik errotria ez zeukein, ezta?

-Ez.

-Bakarrik labia.

-Labie, labie, bai. Urunek kanpotik etorten zien, razionamentuaz, gaiñera. Hainbestentzako, razionamentuaz.

26. Errotak eta garia entregatzea

- **Erref:** ARR-174/043
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra ostean, Uribarrin eta Santa Agedan baziren errotak, baina baserritarrik ez zuten garirik; entregatu egin behar izaten zuten.</p>

Transkripzioa

-Karo zegatik e, hor baeuen ezta? Goratxuau Arrasate zera, errofia.
-A bai, Uribarrin. Santa Agedan be baeuen errofie. Baiñe urunik ez. Garirik ez. Kendu itten auen erdixa. Ta ez zan aillegetan danerako.
-Ia. Karo, zu orduen ia ez zeontzen baserrixan...
-Ez.
-Ta haik entregau einbiko euein ezta?
-Bai. Entregau eraitten utsien, bai bai. Ez dakit zenbat kilokin! Baserri txikiñek zien, diez, e. Baiñe entregau eraitten utsien.

27. Nobio garaia

- **Erref:** ARR-174/051
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:39:15. **Bukatu:** 00:41:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Senarra nola ezagutu zuen kontatzen du. 25 urte zituela hasi zen senargaiarekin, eta 29 urterekin ezkondu ziren. Nobio garaian, inguruko mendietara joaten ziren. Arantzazura erromesaldian, Bergarako Pazkuetara... joan ohi ziren. Trenz ibiltzen ziren gehienetan.

Transkripzioa

-Eta nola ezautu zeбен, ba, zure gizona izango zana?
-E... lanera?
-Nola ezautu zeбен.
- Aa! Ba, ba kuadrillan plazan ta lagunek, kuadrillan.
-Zenbat urtekin hasi ziñan nobixo?
-Eneee! Harutze... ba hogeta bost edo.
-Hogeta bostekin hasi.
-Bai. Baiña aurretik, ba, beti kuadrillan.
-Ya. Eta hogeta bostekin hasi ta gero hogeta beratzikin ezkondu esan dozu.
-Bai, bai.
-Eta nobixo denporan mendira-eta faten ziñain?
-Bai, holan, por ejemplo, Koruetara jaixetan eta Udalara ta holaxen, baiña bestela oingo moduen ez, e? Orduen ez auen hainbeste libertade be ez ta... ba ez zan hori holan ibilteko epokie edo, ba ez dakit.
-Bai, bai. Eta Arrasatetik kanpo urteteko ohitturarik, Bergarara edo Arantzazura edo...?
-Bueno Arantzazura beti, peregrinaziñuen. Hemetik San Prudenziora trenien o... bai. Ta gero han hartu trena ta Oñatire, ta gero Oñatittik oiñez Arantzazura.
-Ama Birjiña egunian?
-Bai.
-Ya. Hori urtero eitten zeuein?
-Urtero, bai.
-Eta Bergarako pazkuetara ta...?
-Bai, baitte. Baitte. Bergara be bai. Trenien.
-Trenien ibiltten ziñein zueik gehixenbat?

-E?
-Zueik gehixenbat trenien ibiltten ziñein?
-Beti trenien, bai, bai. Orduen trena euen bakarrik.
-Eta San Prudentzioko jaittara...
-Hara oiñez.
-Hara oiñez.
-Bai. Juan ta etorri.

28. Senarraren aitajauna arabarra

- **Erref:** ARR-174/052
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:41:08. **Bukatu:** 00:41:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Inaziaren senarraren aitajauna Arabatik joan zen Arrasatera bizitzera. Maisua zen, eta `Maisu txiki` esaten zioten. </p>

Transkripzioa

-Zela eukan izena zure gizonak?
-Lucio.
-Apellidua?
-Velez de Mendizabal. Arana.
-Nuntarra zan bera?
-Hamengue. Aitajaune eukien arabarra. Arrasatera etorri ei zan maistro. Ta txikitxue, ta esaten utsien `Maixo txiki`. Ta ondiokon `Maixo txiki` segiruten dau.
-Aitajauna orduen zuk, aittak e... zure gizonaren aitta...
-Aitajaune zan arabarra.

29. Ezkontza eta eztei-bidaia

- **Erref:** ARR-174/054
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:42:04. **Bukatu:** 00:43:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Santa Agedan, Ignaziaren auzoan, ezkondu ziren. Eztei-bazkaria baserrian egin zuten. Donostian, Zaragozan eta Santanderren egon ziren eztei-bidaian.

Transkripzioa

-Eta nun ezkondu ziñain?
-Hementxe, Santa Agedan.
-Santa Agedan?
-Bai.
-Eta bazkaixa-edo nun in zeuein?
-Basarrixen. Orduen etxien akostunbretan zan, ta bertan basarrixen.

Koziñerie hametik juañ zan geure lagun bat eta...
-Goguen dakotzu zer jan zeuein?
-Eneeeee... ba ez dakit... antzik be ez... ez naz... idearik be ez.
-Eta gero egun bertan juango ziñein biagian, ezta?
-Bai, bai. Zera. Familixakuek kotxie baeukien ta juañ gitzen Donostira.
-Kotxian?
-Ez. Zera, handik Santa Agedatik hona kotxien, ta gero trenien.
-Donostira.
-Bai.
-Zenbat denbora in zeuen Donostian?
-Ez, gero Donostitik Zaragozara. Ta gero etxera.
-Zenbat denpora biagia?
-Ba ez dakit, hamabost egun edo. Gero Donostiatik Santanderrera. Han koñatie geuken mojie, ta ha bisittau eta gero etxera.

30. Debara, hondartzara

- **Erref:** ARR-174/055
- **Iraupena:** 0:08:29. **Hasi:** 00:43:31. **Bukatu:** 00:52:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Umezai egon zenean ikusi zuen aurrenezko itsasoa, Deban. Egun pasa joan ohi zen umeekin Debako hondartzara. Gerora, autobusean joan izan zen.

31. Neskametza

- **Erref:** ARR-174/061
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:45:14. **Bukatu:** 00:46:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Arrasaten neska asko zegoen neskame. Umeekin ateratzen zirenean elkartzen ziren neskameak, San Joanetan. Gainerakoan, neskameak ez ziren biltzen; ez zegoen kafea hartzeko dirurik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com